

## **ETORKIZUNA GUREA DA!**

Edurne Bilbao Aldamiz-Etxebarria

*Gernika-Lumo*

Nire aitonak hil aurretik beti esan ohi zidan: “bitza oso gogorra da”, baina ni umea nintzen ez nekien zer esan nahiko zuen, gaur egungo umeek nahi duten guztia eskuragarri baitute.

Ni Iraitz naiz, hamazazpi urteko neskatxa bat; askotan entzun dut oso liraina naizela, batez ere etxean, guraso guztiek bere seme-alabei esaten dieten bezala. Gernikakoa naiz, horregatik Gernikako institutuan ikasten dut. Nire mutilak, Gorkak, bertan ikasten du, nire gela berean baitago. Ez zait institutua ezer ere gustatzen, nahiz eta ikasketetan ondo ibili. Baina aitortu beharra daukat bertan gertatu zitzaidalako orain arte gertatu zaidan nire bizitzako gauzarik ederrena.

Duela bi urte, institutuko kurtso bukaerako jaialdian, Ken Zazpiren “Ilargia” abestiaren doinu goxoa entzuten eta dantzatzen nengoela, han hurbildu zitzaidan “Marti” izenez ezagutzen nuen mutila (Gorka Martinez), dantzatzera gonbidatuz. Gau guztia berarekin elkarrizketan pasatu nuen eta isilune deseroso batean, berarekin irten nahi

nuen eskatu zidan. Egun horretatik aurrera niretzako munduan dagoen mutilik bereziena izatera pasatu zen, hau da, “Marti” izatetik Gorka izatera.

Gorka eta ni ederto konpontzen ginen gehiengotan, hark bikain ulertzen ninduten ni eta nik bera. Gelakideek esaten zutenez, bikote banaezina ginen, bi urte generamatzalako elkarrekin irteten. Geure momentutxo txarrak ere pasatu genituen: gu bion arteko eztabaidak, gorabeherak..., bikote guztiek izaten dituztelakoak. Baina haserrealdiak bukatzen ziren bakoitzean gure arteko harremana gehiago sendotzen zen.

Azkenaldi honetan dena zihoan zoragarri, eta arraro iruditu zitzaidan, ez bainuen maitagarrien ipuinetan sinisten. Hori jada nire bizitzako beste etapa batean joana baitzen, hau da, haurtzaroan. Nire bizitzan ordura arte “barearen ostean ekaitza zetorren beti”. Nire ustez, hau ez zen errealitatea, printzesatako ipuin erromantiko eta liluragarrietako bat baizik. Gorka nire gainean zegoen denbora guztian, hau da, printzesa izango banintz bezala tratatzen ninduen, bere detailetxoekin, opariak, irribarre zabalak...

Egunak pasatu ahala, lehengo egoera berdinean jarraitzen genuen, denbora guztian elkarrekin, lapa harrian itsatsita egongo balitz bezala. Baina Gorkaren begietako distira lehen baino ilunagoa zen, bere begirada ez zen lehen bezain ederra. Nabaria zen zerbaitek arduratzen zuela, baina nik ez nion garrantzirik eman, nerabeek umore aldatuak izaten ditugulako sarritan.

Institutuan, Gorkarekin hitz egiten hasten nintzen gehienetan, gu bion arteko une kaxkarrak gogorarazten nizkion: errietak, zeloak... eta hark beti barre gelditu ezinik egiten zidan; alabaina, Gorka ez zen betikoa, maitemindu ninduen irribarre hura joana zen bere ezpainetan. Zer zuen galdetzeraz bultzatu zidan horrek, hark ez zidan erantzun nahi izan, ordea.

Harrituta neukan, asteburu gehienetan elkarrekin izaten baikenituen plan gehienak, baina Gorkak azkeneko bi asteburuetan ez ninduen deitu. Nik orduak pasatu nituen neure mutilarekin bat egin nahian; baina, argi zegoen hark ez zuela nirekin gelditu nahi.

Hurrengo egunean, zergatik ez zidan deitu galdetu nion eta hark ikasten gelditu zela esan zidan. Nik ez nion sinesten, Gorka ikasketetarako alperra baitzen, hala ere, ahalegin guztiak egin nituen hura sinisteko.

Institutuko pasilloetan, ikusten ninduenean, urduri samar nabaritzen nuen eta ahalik eta arinen ihes egiten zidan. Lehen berriz, guztiz kontrakoa zen, beti musu ikaragarri batekin estaltzen zidan ahoa. Gorkaren jarrera honek beste neska bat maite zuela pentsatzera bultzatzen zidan, eta beste neska batekin konpartitzen egon ahal izanak amorrua eta negargura sortarazten zizkidan. Hala ere, ez nintzen berari galdetzeraz ausartzen, Gorkarentzako konfiantza ezinbestekoa baitzen bikote kontuetan.

Gauero-gauero milaka bira ematen nizkion buruari ea zer gertatu zitzaigun, ez nuen ulertzen zerk bultzatzen zuen ni horrela apartatzeak, ez baitzen gure artean ezer txarrrik gertatu. Beti arrazoitu nahi izaten nuen neure burua nerabeen umore aldaketak zirela-eta, baina nik ezin nuen gehiago, eztanda egin beharra neukan, ez nekien nola atera nire buruan zegoen eta lo egiten uzten ez zidan arantza hura.

Azkenean, Gorkari beste bat maite zuen galde-tzera ausartu nintzen, egia guztia esateko eskatu nion, nahiz eta egia gogorra izan. Gorkak, isilune sakon baten ostean, aurpegi goibelez, ez ninduela maite esan zidan, beste bat zegoela. Orduan, gu bion arteko momentu guztiak ez genituela berriz pasatuko pentsatu nuenean, negar egiteko gogoia sortu zitzaidan.

Egunak pasatzen zihoazen; oraindik ez nekien nola sendatu Gorkak bihotzean utzi zidan sakonune hura. Oso zaila izango zen gehien maite nuen mutila ahanztea, bera barik planak izatea. Onartu beharra naukan, nahi nuen gauza bakarra Gorka zorionsua izatea zelako. Bihotzak Gorka maite zuen arren, buruak zuen amorrua oraingoz sendagaitza zen.

Gorka oso gaizki nabaritzen nuen, indargabe. Hasiera batean, zorionsu izango zela pentsatu nuen, gustuko zuen neska konkistatzeko bidea libre baitzuen. Baina jada, ez zen lehen zen Gorka parrandazale hura. Gainera, lehen zuen umore txistoso hura guztiz galdua zeukan. Ez zen ezagu-

tzen nuen Gorka, Gorka triste eta goibela; orain-  
goak denbora guztia etxean pasatzen baitzuen, ez  
zen maitemindu ninduen mutil hura, ez horixe.

Berak, jada, ez zuen inorekin hitz egiten. Egun  
guztia bakarrik pasatzen zuen eta gero eta gutxia-  
gotan etortzen zen institutura. Ni oso harritura  
nengoen, ez nuen ulertzen Gorkaren jarrera, zer  
arrazoi zuen bizitza horrenbeste baztertzeko.

Nik ezin nuen gehiago, arrazoi bat behar nuen  
Gorkaren jarrera ulertzeko, txikia bazen ere ez zi-  
tzaidan axola; baina, ezin nuen horrela jarraitu.  
Horregatik, Gorkaren arrebari deitu nion hitz egin  
ahal bagenuen galdetuz, eta Nereak baietz esan  
zidan.

Basoko pagorik ederrenari ere hostoak erortzen  
zaizkio udazkenean, gogoan dut historik gabe gel-  
ditu nintzen eguna; olatu ikaragarriek astindu nin-  
duten eguna; aurrera egiteko esperantzarik eta  
indarririk ez nuen eguna. Nik zein zen Gorkaren  
arazoa galdetu nion eta hark, minbizia zuela esan  
zidan. Gorkak minbizia zuen! Zulo beltzean sar-  
tuak geunden, beldurra eta mina nagusi zen ilusio-  
gabeko kantzerraren putzu beldurgarri hartan.  
Gehien maite nuen pertsonak gaixo larria zeukan,  
nire mutilak! Baina, hala ere, nire barru-barruan  
esperantza minimoaren tanta txiki bat neukan.

Ni harritura gelditu nintzen, ez nekien zer pen-  
tsatu. Errudun sentitzen nintzen, ez niolako behar  
zuen laguntza eman. Orain ulertzen nuen Gorka  
gizajoaren jarrera, baina zergatik ez zidan ezer  
esan? Bera gabe gelditu ahal nintzela pentsatzeak

aurretiaz amestutako planak zapuztu zizkidan, gure seme-alaben izenak pentsatuak genituen, zer lan edukiko genuen, non biziko ginen... Azken finean, Mikel eta Jara ez ziren jaioko.

Gorkaren arrebarekin joan nintzen bere etxera, berarekin hitz egin beharra neukalako. Sentitzen nuen guztia jakinarazi beharra neukan.

Gorkak ikusi ninduenean, harritu egin zen ez baitzuen espero nire bisita. Zer egiten nuen bertan galdetu zidan. Nik dena nekiela erantzun eta besarkada handi bat eman nion. Gorkak negarrari eman zion, eta nik ere izugarrizko gogoak nituen negar egiteko, baina ez nintzen joan bertara negar egitera, baizik eta merezi zituen animu guztiak ematera.

Giroa pixka bat lasaitu zenean, galdetu nion ea zergatik ez zidan ezer esan; eta hark ez zidalako sufritzen ikusi nahi erantzun zidan. Nik, neure sufrimendua berarekin ez egotea eta ezin lagundu izatea zela esan nion; baita pelikuletako heroiaren antzera gaixotasunaren aurka borrokatu behar zuela. Ondoren, biok batera edozer egiteko gai ginela esan nion, baita mundua gainditzeko ere, eta behar zuen guztia egingo nuela berari laguntzeko. Mutilak lasaitasun handia hartu zuen.

Ordutik aurrera inoiz baino elkarrekin gehiago geunden. Nik, medikuengana laguntzen nion eta minbiziak ematen zizkion arazoak, eskuetatik heldu eta gure artean pasatu ziren gauza hunkigarri, ederrei... buruz hitz egiten nion. Baita minbizi zikin hura agertu aurretik genituen plan guztiak

ere gogorarazten nizkion. Hark irribarre zabala egin eta inoiz baino indar gehiagorekin aurre egingen zuen.

Ia hiru urte igaro ondoren, mediku, ospitale eta urduritasun askoren ostean, Gorka sendatuta dago. Lehengo mutil berbera izaten jarraitzen du.

Gaur egun, biok, asteburuetako ordu batzuetan ospitaletara joaten gara minbizia duten ume eta nerabeei poztasuna eta esperantza adierazten.

Orain bai ulertzen dut aitonak esaten zidana, orain bai. Batzuetan, bizitzan, gauza gogorretatik pasatu behar da hura zein gogorra den jakiteko. Baina nik, neure kasuan, inoiz ez dela amore eman behar eta esperantza txiki bat beti izan behar dela ikasi dut, baita bizitza ez dela guri eskuak zabalik egongo. Nik pasatu ditudan momentu hauek guztiak, esperientzia bezala hartuko ditut eta antzeko egoera bat hurbiltzean aurrera egingo dut neure indar guztiekin! Zin egingen dut!